

## KORRIKA KULTURALA

### **MARTXOAK 27, OSTIRALA**

**15.00:** **Korrika txikia** abiatuko da Irubideko biribilgunetik. Elizalde eskolako eta Hautzaro ikastaolako ikasleek parte hartuko dute.

**19.00:** **Gazte korrika** abiatuko da Kataxulo Gaztetxetik. Herriko gazte taldeek hartuko dute parte. Ibilbidea: gaztetxea- Rafael Pikabea- Bekoplaza- kiroldegia- belutene- plaza.

**22.00:** **Mus txapelketa** kontzejupean. Sariak banatuko dituzte baita errepekan ere.

**23.00:** **Herriko bertso txapelketa**ko lehendabiziko kanporaketa, Amazkar tabernan. Parte hartuko duten bikoteak: Egoitz Zelaia-Iñigo Ugarte; Haritz Casabal- Manu Goigana; Aitor Errazkin-Arkaitz Oiartzabal "Xamoa"; Ander Lizarralde- Oskar Iburguren. Gai jartzailea: Esteban Martiarena.

### **MARTXOAK 28, LARUNBATA**

**16.30:** **Haur jolasak** Doneztebe plazan

**18.30:** **Kontzertuak:** Ibargaingo **Nau** taldeak, **Ibargaingo Flauta taldea** eta **Pop-rock Orkestrak** hiru orduko saioa emango dute.

**23.00:** **Jon Miner eta Intxixu lotien banda**-ren kontzertua plazan. **Musika** jarriko dute kontzejupean, gaua girotzeko.

**EGUN GUZTIAN ZEHAR:** Elizalde auzoko tabernetan eta Doneztebe plazan **korrika tonbola**.

### **MARTXOAK 29, IGANDEA**

**05.09:** **Korrika Oiartzunera iritsiko da**. Arraguatik sartuko da aurten euskararen aldeko aldarrikapena, Fanderiatik. Herriari bira eman ondoren, Gurutzetik Irun aldera joango da. Behin korrikak herria uzten duenean, gosaria izango da kontzejupean.